

## HARRIA ETA GISUGILEAREN ELEZAHARRA

Etxeak larrainak bezain garrantzitsuak dira Etxaurin jaiotako jendearentzako. Oraindik ere, jendeari deitzeko, etxeko izena erabiltzen da; etxeko izenak egungo jabearen erreferentzia egin dezake, edo aspaldiko jabe batena, edo abizenarena edo izengoitiaren erreferentzia. Horrela, gaur egun “*casa del rojo*”, “*casa del sastre*” (nahiz eta gaur egun jostunik batere ez izan), “*casa Apesteguía*” eta abar erabiltzen dira. Izen horiek euskaratik datoz, eta etxeko izen batzuek ere haietan bizi direnen ogibidearekin dute zerikusia: adibidez, “Apezetxea” apezaren etxea da, jakina. Harrizko etxeak herriaren erdigune historikoan daude; haietako batzuk karez estaliak, duela mende bat zabaldu zen modaren arabera. Gaur egun, berriro balioa eman zaio harrizko etxaurreari eta, horrela, zenbait etxek “harria agerian” utzi dute. Beste batzuek etxaurrea estali dute, eta eraiki berri diren batzuek ingurunea errespetatu dute eta, oso-oso, harriz eginak daude, usadiozko estetikarekin bat. Lehenago, harria haitzetatik ateratzen zuten, eta kalitate handikoa bada ere, gogorregia da, eta harri-lan hori garestia izaten da, zinez. Harria luzaro aire zabalean egoten denean, halako tonu urdinxka bat hartzen du, toki-izenek berek erakusten duten bezala; esate baterako, *arriurdiñeta* haitzetako alderdi baten izena da.

Haitzetan, lehenago, kare-harrobiak zeuden, baina ia ez da horren gaineko oroitzapenik. Karea etxaurreak margotzeko eta etxeak desinfektatzeko erabiltzen zen; gaur egun, ordea, karea Iribarrenek jasotako elezahar batean ageri da, baina besterik ez:

*Etxaurin ba omen zen gisugile bat. Behin batez, harriak ateratzeaz eta labeaz egosteaz zeharo nazkatua, deabruak tentatu omen zuen eta, bere zortea madarikatuz, gisugileak oihu egin omen zuen:*

- *Aberatsa izan nahiko nuke, lanik ez egiteko!*

*Eta, aberats bihurtua gelditu zen. Madrila joan eta, goiz batez, erregea bere karrozan pasaeran ikusita, haren botereari bekaiztu zitzaion:*

- *Errege izan nahiko nuke!*

*Desioa istantean bete zen. Gisugilea errege izan baitzen eta, arratsalde batez, tropak ikuskatzen ari zela, eguzkiak buruan min egiten ziolako haserre, hauxe desiratu zuen:*

- *Eguzkia izan nahiko nuke!*

*Hainbat egun zeramatzan eguzki bihurturik, eta San Donatoko haitzera joatea bururatu zitzaion handik bere herria eta kare-harrobia ikusteko. Etxauri begiztatu bezain laster, hodei oso lodi bat aurrean jarri zitzaion...*

- *Hodeia izan nahiko nuke!*

*Bat-batean hodei bihurturik, Etxauriko kare-harrobia ederki ikusteko aukera izan zuen. Beste gisugile batzuk ikusi zituen ahalegin nekosoan harriak atera nahian. Haietaz errukituta, bere barruko ura harkaitzaren gainean isurtzen hasi zen, harria biguntzeko. Ezer ere lortzen ez zuela ikusita eta harriak beti bezain gogor zirauela ohartuta, oihu egin zuen:*

- *Haitza izan nahiko nuke!*

*Eta harrizko erraldoi bihurturik gelditu zen Etxauriko mendatearen gainean. Herriko jendeak haren irudi luzanga bereizten du. Gisugilearen irudia da, mudantzen grinari kateatua dagoen Prometeo berria. Jaitzeko apez zahar batek bazekien istorio hori.*

*Gero, Japoniako elezahar eder bat ikusi dut, "arratoien ezkontzak"; eta hartan antzeko gai bat ageri da (Iribarren, 1984: 57,58).*

#### BIBLIOGRAFIA:

IRIBARREN, J, M. (1984): *Burlas y chanzas*. Gómez-Edybel, Iruñea.